



Euskararen aldeko aktibazio soziala: aukerak eta proposamenak



27.Jun - 28.Jun 2022

Cod. G05-22

Mod.:

Streaming Face-to-face

Edition

2022

Activity type

Summer course

Date

27.Jun - 28.Jun 2022

Location

Miramar Palace

Languages

Basque

Academic Validity

20 hours

Organising Committee



Description

Aurtengo ikastaroa, iaz antolatu genuen "Hizkuntza gutxituen aldeko aktibazio soziala" ikastaroaren jarraipena da.

Iaz marko teorikoa eta ikuspegi praktikoak landu genituen, eta aurren praktika zehatzetan jarriko dugu fokua: munduko beste hizkuntza gutxituetako hainbat aktibazio-esperientzia ezagutuko dugu (Galesko kasua bereziki landuz), beste mugimendu sozialetako esperientzietan arakatuko dugu eta berauen artean, euskararen aldeko dinamiketarako baliagarriak izan daitezkeen proposamenak aztertuko ditugu, eta azkenik, begirada euskalgintza barruko egitasmo berritzaileetan jarriko dugu.

Adituen eta "arrituen" ekarpenak elkartuko ditugu ikastaroan, etorkizunera begira, hizkuntzaren aldeko aktibazio soziala handitzeko, zabaltzeko eta eraginkorrago bilakatzeko klabe nagusien eta erreferentzia praktiko erabilgarrien bila.

Objectives

Euskararen aldeko aktibazio soziala handitzeko eta eraginkorrago bihurtzeko gako nagusiak identifikatzea eta esperientzia praktikoak ezagutzea

Munduko beste hizkuntza gutxituetako aktibazio-esperientziak ezagutzea eta berauetatik ondorioak ateratzea Euskal Herrian aplikatu ahal izateko. Bereziki Galesko kasua aztertuko da.

Beste mugimendu sozialetako esperientziak ezagututa, euskalgintzan ari diren erakundeei, nahiz teknikari eta bolondresei, erreferentzia praktikoak eskaintzea, euskararen aldeko aktibazio soziala indartzeari begira

Program

27-06-2022

08:45 - 09:00	Dokumentazio banaketa
09:00 - 09:30	Presentation by the Director of the activity Kike Amonarriz Gorria Euskaltzaleen Topagunea - Lehendakaria
09:30 - 10:30	“Aktibazio-esperientziak munduko hizkuntza gutxituen artean” Maialen Sobrino Lopez Garabide Elkartea
10:30 - 11:45	“Ziberaktibismoa: Zuhaitza, Huntza, Mihura, Errizoma” Gorka Julio Hurtado Talaio kooperatiba - Kooperatibista
11:45 - 12:15	Break
12:15 - 13:30	Round table: “Aktibismo interseksionala” Euskalgintzari begirada mugimendu ekologistatik Lorea Flores Compains Greenpeace - Hego Euskal Herriko koordinatzailea Armairuak eta arnasmuneak. Euskalgintzari begirada aktibismo feminista eta LGTB-tik June Fernández Casete Kazetari feminista
13:30 - 14:00	Synthesis

28-06-2022

09:00 - 10:15	“Cymdeithas yr Iaith: esperientziak partekatzen Gales eta Euskal Herriaren artean” Mabli Siriol Jones Cymdeithas yr Iaith - Lehendakaria (Participation by zoom)
10:15 - 11:30	“Feminismoa eta euskalgintza: joan etorrian” Miren Aranguren Etxarte Emagin Elkartea - Koordinazio taldeko kidea, ikerketan jarduten du bereziki
11:30 - 12:00	Break
12:00 - 13:30	Round table: “Mahai-ingurua: aktibazio sozialerako bide berriak mugimendu euskaltzalean” Mikel Azkarate Perez Lau Haizetara topaguneko talde eragileko kidea Iban Arantzabal Arrieta Tokikom-Goiena - Goiena komunikazio Taldean zuzendari nagusia Yasmine Khris Maansri Khris Maansri Laba-Iruñea - LABA elkartearen kidea

Directed by



Kike Amonarriz Gorria

Euskaltzaleen Topagunea

1961ean Tolosan jaioa. Euskal Filologian lizentziatua (UPV/EHU). Euskalgintzako hainbat esparru eta erakundetan aritutakoa: Galtzaundi Euskara Taldea, Tolosako Udal Euskara Zerbitzua, Siadeco. Euskararen Aholku Batzordeko partaide eta une honetan Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria. Umoregile gisa aritu izan da eta 4 txiste-kasete eta 6 txiste-liburu ditu argitaratuta. Hainbat telebista-programen zuzendari eta aurkezle. Besteak beste: Hau da A.U., Balinda, Txiskola, Mihiluze edo Tribuaren berbak. Soziolinguistikari buruzko artikulu ugari idatzi ditu. HIZNETeko irakasle. 2019an "Euskararen bidegurutzetik" liburua argitaratu zuen. "Hizkuntzen mundua eta euskara deskubrituz" eta "Hizkuntzarekin jolasean" unitate didaktikoen egilea.


Teachers



Miren Aranguren Etxarte

Emagin Elkarte

Nafarra jaiotzez eta gipuzkoartuta azken urteetan. Soziologiako ikasketak egin nituen aspaldi, baina nire benetako ikasketak herrigintzan egin ditut. Gazte eta gaztetxe mugimenduetan aspaldi, eta azken 20 urteetan Euskal Herriko Bilgune Feministan eta Emagin Elkarte. Mugimendu feministaren historian murgildu nintzen orain dela urte batzuk "Gure Genealogia" feministak osatzeko (liburu bat argitaratu genuen izen berarekin). Azken urteotan zaintza lanen esparruan buru belarri nabil.



Iban Arantzabal Arrieta

Goiena komunikazio Taldea koop. E. , Zuzendari nagusia

Hasierako ikasketak zientzietatik , baina magisteritzan lehenengo eta EHUko euskal filologian gero, letrak ezagutu zituen. Gerora bueltatu zen, behin lanean hasi ostean, zenbakietara. Horrela egin zituen "Kooperatiba enpresetako kudeaketan kurtso aurreratua" MUn, Enpresa zientzietan; ondoren, MBA Executiv masterra Mondragon Taldearen Otalora eraikinean. Gaur egun kudeaketa du ofizio Goiena Komunikazio Taldean eta pozik dago kooperatibako lan bazkide eta jabekide izateaz. Talde handixeagoan, Tokikomeko parte da, 76 toki komunikabide dituen enpresako presidente. Bestelakoetan ere jardun du: 2deu euskarazko ikus-entzunezkoen laborategiaren sorreran urte bi, Espaloia kafe Antzokian 10 urte kooperatibako presidente, Euskaliteko ebaluatzaile, Irrati programa bi Arrasate irratan, Euskal Herriko Ahotsak (ahotsak.com) zuzendaritzan, Badihardugu elkarte, Goibeko euskaltzaleen topagunea Zuzendaritzan, Topagunean 10 urte zuzendaritzan egona, Susa literatura, Gaztelupeko Hotsak, Hekimen...Beste enpresa batzuetako zuzendaritzetan Goiena ordezkatzuz: Alea, Batura mobile, Batu banatu, Abao komunikazio agentzia, Arteman



Mikel Azkarate Perez

Lau Haizetara topagunea

Miembro fundador de la asociación Lau Haizetara (1992) en Erreterria/Orereta (Gipuzkoa). Uno de los agentes del proceso participativo "Aukerak sortzen" para la revitalización de la asociación en el periodo 2020-2021. Miembro del Consejo Asesor de Políticas Lingüísticas Municipales del Ayuntamiento de Erreterria. Profesor diplomado en Educación Primaria, y licenciado en Filología Vasca por la UPV/EHU. Fue profesor de euskera en el Euskaltegi Municipal de Irun (Gipuzkoa) y, posteriormente, técnico de euskera en el Concejo de Antsoain (Navarra) en la cendea del mismo nombre. Actualmente, traductor de la Diputación Foral de Gipuzkoa, coordinador del Plan Lingüístico en el Departamento de Hacienda y Finanzas de dicha institución y miembro fundador del grupo Saregin (2006) para la promoción del euskara.



June Fernández Casete

June Fernández es periodista y ha coordinado durante diez años la revista feminista Pikara Magazine, de la que es fundadora. En la actualidad, escribe con perspectiva feminista interseccional en distintos medios, especialmente en Pikara y en la revista ARGIA. Ha impartido cursos sobre el uso no sexista del castellano y del euskera en UPV/EHU, Gobierno Vasco e IVAP. En la actualidad, desarrolla junto con Amaia Alvarez Uria el proyecto de Zinegoak "Nola esan/izan bollera euskaraz" y participa en el proyecto de Histeria Kolektiboa "Maternidades bollo", además de en el grupo Berbalagun Feminista, puesto en marcha por Pikara. También ha iniciado el proyecto Urdin Elektriakoa, de entrevistas y actuación con mujeres feministas de la cultura vasca, en el espacio BIRA de Bilbao. En 2018 participó en el Euskaraldia, dentro del Hamaikakoa de Bilbao, y esa experiencia ha sido un punto de inflexión en su biografía lingüística. Ha militado en distintos colectivos antirracistas, LGTB y feministas. En la actualidad, vive en Larrabetzu y milita en su grupo feminista, Zutunik!



Lorea Flores Compains

Greenpeace

Biologian lizentziatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean (Leioa). Ondotik Ekosistemen biodibertsitate, funtzionamendu eta kudeaketaren inguruko masterra egin eta Ibai Ekologian doktoratu zen unibertsitate berdinean. 2014an doktoretza lortu ondotik urte batzuk ibai ekologiari lotutako ikerkuntzan eman zituen, lehendabizi Euskal Herriko Unibertsitatean eta ondotik Frantziako nekazaritzako ikerketa institutuan (Senperen). Bere ikerketa batez ere ibai ibilguen errehabilitazioari, uretako ornogabeei eta ibaien funtzionamenduari lotuta egon zen. Ondoren ikerketa akademikoa alde batera utzi eta 2018. urtetik Greenpeace erakundean ari da lanean Hego Euskal Herriko koordinatzaile moduan



Gorka Julio Hurtado

Talaios Ahalduntzean Oinarritutako Sarea S Koop

Gorka Julio Informatikako ingeniari teknikoa da EHUtik. Gainera, UOCek administrazio publikoan Software Libreari buruzko Masterraren titularra da. Kooperatibista da Talaios kooperatiban, Olatukoop eta Koop57 EH finantza etikoen erakundearen sustatzailea. Software libreko irakaslea izan da Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU), Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) eta Asmoz Fundazioak eskaintako graduondokoan. Mondragon Unibertsitateko (MU) LEINN graduko (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua) teknologiei buruzko ikastaroko irakasle aditua izan da Bartzelonan, Bilbon, Irunen, Madrilen, Oñatin, Queretaron eta Valentzian. Gainera, UEUk eta UPVk batera eskaintzen duten HEZIKT «IKTak eta konpetentzia digitalak hezkuntzan» graduondokoan parte hartzen du. Enpresa-arloko prestakuntzaren eta jabekuntzaren esparruan, gizarte-ekonomiako prestakuntza-prozesuetan dihardu. Kooperatzen, BerrekinBerregin, Tanslanekin eta, orain, Koopfabrika bezalako ekimen kooperatiboak sustatzeko programetan parte hartu du. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiekin zerikusia duen prestakuntza eskaintzen du hainbat proiektutarako. Halaber, Radio Euskadi,



Yasmine Khris Maansri Khris Maansri

Yasmine Khris Maansri naiz, 25 urte ditut eta LABAko kidea naiz. Marseillan jaio nintzen (1996), eta Atzerriko hizkuntzen Gradua, Hizkuntza-interpretazio Masterra eta Garaiko Historia Masterra egin nituen, eta gaur egun itzultzaile eta kazetari bezala egiten dut lan. Kazetaria naiz Hamaika telebistan eta Berria egunkarian, eta itzultzaile eta interpretea naiz Iruñeko Justizia Jauregian. Frantsesa ama-hizkuntza dut eta, bertzalde, euskaraz, gazteleraz, ingelesaz eta galegoz hitz egiten dut. Arabiera ikasten ari naiz. LABAn sartu naiz proiektuaren zabalpenaren hasieratik, 2020ko abenduan eta egun, komunikazio taldeko kidea naiz, besteak beste.



Mabli Siriol Jones

Mabli Siriol Jones is the current national Chair of Cymdeithas yr Iaith, the movement that campaigns and takes non-violent direct action for the Welsh language and communities of Wales. Cymdeithas is celebrating its 60th anniversary this year. Mabli has been a voluntary activist with Cymdeithas over

recent years, and has worked in the Senedd (the Welsh Parliament) and as a campaigner for LGBT rights and reform of the asylum system.



Maialen Sobrino Lopez

Garabide Elkartea

Maialen Sobrino baztandarrak itzulpengintza eta interpretazio ikasketak egin zituen Gasteizen, Euskal Herriko Unibertsitatean, eta bere ibilbide profesionala hizkuntzei estu lotuta egon da. Itzultzaile lanetan jardun du, baita irakasle lanetan ere, tartean euskara irakasle Polonian Etxepare Institutuaren bidez, Gasteizko Hizkuntza Eskolan eta Gasteizko IRALEn. Hizkuntza gutxituen alorrean lanean 2015ean hasi zen, Nafarroa Oinez-eko “Txikiak Handi” egitasmoaren bidez. 2017an Garabide Elkartean hasi zen lanean eta ordutik du harreman estuagoa munduko hizkuntza aktibistekin. Hizkuntza gutxituei lotutako hainbat proiektutan parte hartu du (Hitz Adina Mintzo, HIGA, PEN kluba...) eta komunikabideetan ere hizkuntza gutxituak izan ditu hizpide; besteak beste, hiru urtez aritu zen Radio Euskadiko Graffiti irratsaioan hizkuntza aktibismoari buruzko kolaborazioak egiten.

Registration fees

FACE-TO-FACE	UNTIL 27-06-2022
General	80,00 EUR
Reduced fee regular	68,00 EUR
Registration exemptions	56,00 EUR
Courses for everyone	68,00 EUR
Donostia Kultura	68,00 EUR
Elkar	68,00 EUR
Professionals and students of euskaltegis or approved self-learning centers	68,00 EUR
LIVE ONLINE	UNTIL 27-06-2022
General	80,00 EUR
Reduced fee regular	68,00 EUR
Registration exemptions	56,00 EUR
Courses for everyone	68,00 EUR
Donostia Kultura	68,00 EUR
Elkar	68,00 EUR
Professionals and students of euskaltegis or approved self-learning centers	68,00 EUR

Place

Miramar Palace

Gipuzkoa